

Zer da bermikonpostajea?

Sarrera

Bermikulturaren teknika zenbait lur-zizare espezieren erabileran oinarritzen da: hondakin organikoak bermikonposta bihurtuz. Gure inguruan erabiliena Kaliforniako zizare-gorria (*Eisenia foetida*) da, baina, badira bestelako espezie egokiak (*Eisenia andrei*, *Dendrobaena ventea*= *Eisenia horticola* eta *Lumbricus rubellus* klima epeletan eta *Eudrilus eugeniae*, *Perionyx excavatus* eta *Pheretima hawanya* tropikoetan). Edozein kasutan lur-zizareak aukeratzen dira duten jatuntasun handiagatik eta ugaltzeko duten ahalmenagatik konpostajearen prozesua azkartzen baitute eta baita humusaren sorrera.

Sistemak

Bermikonpostajea neurri desberdinetako ontzietan egin daiteke eta ondorioz, testuinguru desberdinetan sortutako materia organikora egokitu daiteke. Aire zabalean jarritako aska bidez edo babespean ere egin daiteke, sehaska-sistema bidez egin daiteke edo fluxu-jarraituko errektoretan.

Gure kasuan praktikoena sehaska-sistemak edo ontzi itxiak erabiltzea da.

Abantailak

- Erabilerraztasuna eta mantentze-lan gutxi.
- Lur natural gainean ontzian egindako konpostajeak baino prozesu azkarragoa.
- Bermikonpostagailua edozein txokotan edo balkoian jarri daiteke zoladura gainean.
- Toki gutxi behar du eta zizareek sortutako konposta modu mailakatuan jaso daiteke; izan ere, konpostagailu hauek geruza bidez osatuta daude.
- Bermikonpostagailuan hondar organikoetatik landareentzako konposta lortzen dugu. Hau da, hondakin bat baliabide bihurtzen dugu.

Erabilera

Bermikonposta kolore beltza izaten duenean, belaki ehundura duenean, eskuetan desegiten denean eta kafe-hondar itxura duenean biltzen da.

Zizare gehienak goiko azpiletan egongo dira. Hala ere, jasotzen den azpolean zizare batzuk egon daitezkeen arren, ez da landareentzat oztopoa, guztiz kontrakoa. Gutxiago egon daitezen bermikonposta jasoko duen azpila goi-goian utzi genezake egunetan zehar, beherantz jaitsi daitezen elikagai bila.

Lixibatua jasotzeko txorrota edo kanila zabaldu eta gutxienez 3 ur partetan diluitu behar da, nahiz eta errazena txorrota beti zabalik eta azpian ureztaontzi bat jartzea izan; ureztatu aurretik, goraino bete. Barruko zein kanpoko landareekin erabili daiteke. Landareek elikagai gehien behar duten urte-sasoia udaberria (hazkuntzarako) eta udazkena (udako galera orekatzeko) dira. Erabili daitezken bermikonpost solido kopuruak gutxi gorabehera hauek dira:

- Landareak eta loreak..... 200 gr / landare bakoitzeko
- Barazkiak 200 gr / landare bakoitzeko
- Loredun zuhaixkak 500 gramotik 1 kg arte / zuhaixka bakoitzeko, neurriaren arabera.
- Loreontziak eta antzerakoak..... %50 lorezaintzarako lurrearekin nahastuta.

Normalean humus eskukada batek 30 eta 50 gr inguru pisatzen du.

ITURRIA: Compostadores.com; "*Como hacer un buen compost*", Mariano Bueno.

¿Qué es el vermicompostaje?

Introducción

La técnica de la vermicultura se basa en la utilización de algunas especies de lombrices de tierra para transformar desechos orgánicos en vermicompost. En nuestro entorno la más utilizada es la lombriz roja de California da (*Eisenia foetida*) pero existen otras especies aptas (*Eisenia andrei*, *Dendrobaena veneta* = *Eisenia horticola* y *Lumbricus rubellus* en climas templados, y *Eudrilus eugeniae*, *Perionyx excavatus* y *Pheretima hawanya* en los trópicos.) que se utilizan en distintos lugares. En cualquier caso se suele optar por estas lombrices de tierra debido a su gran voracidad y a la gran capacidad de reproducción que ayuda a acelerar el proceso de compostaje y de creación de humus.

Sistemas

El vermicompostaje se puede realizar en recipientes de distintas medidas por lo que se puede amoldar a la materia orgánica que surja en los distintos contextos. Se puede realizar en pilas al aire libre o bajo techo, sistemas de cunas, sistemas de proceso por lotes al aire libre o en interiores o vermicompostaje en reactores de flujo continuo. En nuestro caso lo más práctico suele ser emplear el sistema de cunas o recipientes cerrados.

Ventajas

- Fácil manejabilidad y poco trabajo de mantenimiento.
- Proceso más acelerado que el compostaje en contenedor sobre tierra natural.
- El vermicompostador puede instalarse en cualquier rincón o en el balcón del piso sobre pavimento.
- Necesitan poco espacio y el compost formado de las lombrices se puede retirar escalonadamente ya que estas compostadoras están formadas por capas.
- Del vermicompostador obtenemos compost **para las plantas** a partir de restos orgánicos. Convertimos un residuo en un recurso.

Aplicación

El vermicompost se recoge cuando es de color negro, de textura esponjosa, se deshace en las manos y tiene una apariencia similar al poso del café.

La mayoría de las lombrices estarán en las bandejas superiores. Siempre pueden quedar algunas en la bandeja que se recoge, aunque no son ningún inconveniente para las plantas, al contrario. Para que haya menos se puede colocar la bandeja de la que se va a extraer el vermicompost arriba del todo durante unos días, para darles tiempo a que desciendan en busca de alimento a las bandejas inferiores.

Para recoger el **lixiviado** hay que abrir el grifo y diluirlo en un mínimo de 3 partes de agua, aunque lo más simple es mantener siempre el grifo abierto con una regadera debajo y, antes de regar, acabarla de llenar hasta arriba. Se puede utilizar tanto para plantas interiores como exteriores.

Las estaciones del año en las que las plantas requieren más nutrientes son en primavera, para el crecimiento, y en otoño, para compensar el desgaste del verano.

Las **cantidades aproximadas** de vermicompost sólido que pueden aplicarse son las siguientes:

- Plantas y flores..... 200 gr por planta
- Hortalizas 200 gr por planta
- Arbustos con florde 500 gr a 1 kg por arbusto, según el tamaño
- Macetas y similares..... mezclado al 50% con tierra de jardinería

Normalmente un puñado de humus pesa entre 30 y 50 gr.

FUENTE: Compostadores.com; "Como hacer un buen compost" de Mariano Bueno.